

UDAL-BATZARRA 6/07

UDAL-BATZARRAK, 2007ko EKAINAREN 13an EGINDAKO EZOHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Fidel Azpiroz Arrillaga

ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Otermin Garmendia
M^o Carmen Egurza Salaberria
Mikel Zubillaga Galarraga

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

ANOETako Udaletxean, 2007ko ekainaren hamahiruan iluntzeko zortzi terdiak gutxi direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ezohiko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik Jesus M^a Arsuaga Lizaso, Kepa De la Iglesia Sánchez, Nieves Alarcos Martinez eta Silvia Dos Santos Leite Zinegotziek ez dira etorri eta ez du arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea.

1.- 2007KO MAIATZAREN 9 ETA 26EAN OSPATURIKO AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

Udalbatzak maiatzaren 9 eta 26ean egindako bilkuraren akta irakurri eta aho batez onetsirik geratu dira.

La Corporación aprueba por unanimidad de los reunidos las actas celebradas con fecha 9 y 26 de mayo de 2007.

2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak egindako ebazpenen berri eman du, alegia, 2007 urteko maiatzaren 3tik, 205 zkia, ekainak 13^a bitarte, 274 zkia, biak barne; korporakideek jakituen geratzen direlarik.

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga da cuenta de las resoluciones dictadas desde el 3 de mayo n^o 205 al 13 de junio n^o 274, ambos inclusive; dándose la Corporación por enterada.

Gero, bertaratutako batek hitza eskatzen du ondorengo adierazteko:

A continuación uno de los asistentes a la sesión solicita la palabra para intervenir en la misma:

1.puntuari dagokionez:

Bertaratutako batek dio:

“Gaur ere, Ikastolaren izenean hitz egingo dut. Lehen eta behin argibideak eskatzeko asmotan etorri gara. Oraintxe jaso dugu maiatzaren 26ko plenoko 3. puntuaren trasladoa baina nik idatziz, maiatzaren 9 eta 26ko akten zirriborroa eskatu dut”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Eskaera hori noiz egin da?”

Bertaratutako batek dio:

“Atzo idatziz eta erenegun ahoz. Adierazi zitzaidan arazoren bat edo beste bazegoela”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Idatzi hori nik ez dut eskuratu”.

Bertaratutako batek dio:

“Argibideak zuek eman beharko dituzue. Bestalde, pasa diguzuten trasladoan argi asko azaltzen da abuztuaren 31ean jartzen dela mankomunitatea desegiteko epea. Aipatu zen bezala, Ikastolak behin eta berriro bilera eskatu du. Azkeneko aktan eskaera hori luzatu zen eta uste dut ere aipatu zela egokia litzatekela bai akordio honekin batera hitzarmena ere momentu beretsuan sinatzea. Eskaturiko akta horietako batean ere azaltzen zen mahaiaren beste aldetik zaudetenak problematika bat zenutela hitzarmena aurrera ez egiteko garbitzailearen gaiarekin. Gai hau dela neurri batean hitzarmena blokeatu dezakeena. Ikuspuntu kontrajarri bat jarri nahi dugu”.

Jose Ignacio Otermin zinegotzi jaunak erantzuten dio:

“Barkatuko didazu, pleno honen helburua da bakarrik aktak onestea, ezin dugu ezer gehiago egin”.

Bertaratutako batek dio:

“Esan dudan bezala, hor hainbat aspektu bazeuden hitzarmen honetan berridazketa behar zituztenak; aspektu ekonomikoa, eraikinaren erabilera, mantenuaren gaia, garbitzailearena noski. Eta bazegoen bat, hemen izandako elkarrizketaren ildotik, non, azaltzen zen Amaiari bertako langileari, egin beharreko deiaren baitan edo jartzen zen pixka bat hitzarmenaren blokeo hori”

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Bakarrik komentatu momentu honetan Jose Ignaciok esan duena, gaurko bileraren helburua bakarrik da aktak onartzea. Egin duzun eskaera hori orain entzun dut lehen ez nekien ezer; agian ez du behar den denbora eman erantzuteko. Era guztita hor egin dena da traslado hori notifikatu ikastolaren inguruan hartu zen akordio. Aktak hor daude eta edonor noiz nahi kontsulta ditzazke”.

Beste bertaratutako batek dio:

“Lehenengo plenoan komentatu zenuten faltza zitzaizuela jakitea datu batzuek hitzarmen-proposamena egiteko. Datu horiek garbitzaile eta pertsonalaren gastuak ziren. Gastuak, zuek esan diozue langilei eta Ikastoak onartu du, momentu honetan dauzkaten baldintzak errespetatuko zaizkiela subkontratarekin izan edo ikastolarekin izan. Beraz, gastua zein den zuek gu baino hobeto dakizue. Guk badakigu Ikastolari eskatu bait zenioten gestioa egiteko subkontrata egin ahal izateko. Guk zuei eskatu genizkizuen gastu horik eta eman zizkiguzuen 2006ko gastu guztiak. Gertatzen da eman zitzaigula hilez-hil, hilero ordu extrak ezberdinak bait dira. Lehenengo kontsulta egin genuen datu horiekin; gero zuri komentatu genizun aurrera segitzekotan gestioarekin baina kontratuaren datuak behar zenituzten, hau da, zenbar orduko kontratua daukan, ordu horiekin ze basea daukan, aintzinasuna, bere datu guztiak. Lehenengo momentuan esan zenuten ekarriko zenizkigula eta handik pixkatea esan zenuten Amaiari eskatzeko lasai eta emango zizkigula. Ez da eskatu, baina zergaitik? Hori behar genuen gestioarekin aurrera jarraitzeko baina esan dudana bezala, lehen harremana izan genuen enpresa batekin ondoren udalarekin bilera izan zen eta garbitzaileak argi eta garbi utzi zuen berak ez zuela subkontrata onartuko. Orduan, zuk esan duzu, itxoin egin behar dugu, ez dugu jarraituko gestio honekin aurrera ez badakigu nola bukatuko den. Guk ez dakigu momentu honetan zuek benetan hitzarmen bat baduzuen langile horrekin edo onartu duen subkontratu egitea. Hala baldin bada ikastolak sinatu behar duen hitzarmenean, termino horiek jasotzen baldin bada, subkontrata izango da eta Ikastolak gestioantuko du, orduan kontratuaren datuak Ikastolak eskatuko ditu aurrera egiteko”.

Jose Ignacio Otermin zinegotzi jaunak erantzuten dio:

“Nahi baduzue, egun batean hitz egingo dugu, diskutituko dugu. Gaia da, akta aprobatzea edo ez. Nik irakurri dut eta uste dut komentatu duzuna aktan agertzen dela. Zu konforme egongo zara edo ez baina aktan azaltzen da komentatzen dena, puntu gehiago ez”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Maiatzak 26ko aktako interbentzioan azaltzen zenuten bezala, kiroldegiaren erabilpenari buruz Ikastolarekin sinatu nahi den hitzarmen honen inguruan ez dago arazorik. Berehala adostu genuen testua”.

Bertaratutako batek dio:

“Nik jarraitzen dut nirearekin; idatziz eskatu dugun akta irakurri eta ikusten badugu rektifikazioaren bat aktan jasotzea nahiko genuke, uste dut baduela tokia onarpen prozesu honetan”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Zuek ez duzue akta. Egokiena da, eskuratu akta eta non hemen esan ez den zerbait agertzen bada korrekzioa egin. Barkatu, aktan biltzen da hemen esan dena. Zure iritzia, nirea, ados egon edo ez egon,

hori beste gauza da. Akta onartu dugu. Eskutan dugunok esan dugu baietz, aktan ez dagoela aldaketarik esandakoarekin”.

Bertaratutako batek dio:

“Argitzearren, ni etorri nintzen astelehenean, esan zitzaidan momentu horretan bukatzen ari zirela akta egitez eta kito. Atzo jakin genuen plenoa zegoela non aprobaten ziren azken bi aktak, berriro etorri nintzen eta idatziz egin nuen eskaera”.

Alkate jaunak erantzuten dio:

“Niretzat sorpresa da, nik atzo iluntzean jaso nuen akta. Era guztita, bideratuko zaizue eta hemen esan ez zenik badago, zuzendu”.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, gaueko bederatziak eta laurden direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.